



Ermuko Udaleko Bozeramaileen Batzordearen erabakia

Urtarrilaren 19an ermuarrok eta Udal honek **berri oso txar bat** jakin dugu prentsaren bitartez, berriro ere **bigarren mailako bizkaitar sentiarazten gaituena**., gure diputazioak hautsi egin duela Saihesbidea berehala egiten hasteko Ermuarekin zuen konpromisoa.

Horrela, ermuarroi pazientzia eta ilusioa agortzen ari zaizkigu, gure herria delako Bizkaian trafikorik handiena jasaten duen errepide nazionalak zeharkatutako eta saihesbiderik gabeko herri bakarra

Hainbeste urte zain egon ondoren, auto-ilara luzeak pazientziaz eraman eta gure osasuna eta bizi-kalitatea gutxitzen duen kutsadura akustiko eta ingurumenarena horrenbeste denboraz jasan eta gero, bizkaitar guztion Diputazioak irizpide objektiboek jarraitzen ez dien erabakia hartu du gure ustez.

Diputazioak 2011rako aurreikusita zeuden diru-bilketa xedeak bete direla, eta krisiaren fase hau nolabaiteko superabitez eta nahikoa kaudimenez aurre egiten ari zaiola esan ondoren, krisia bera ematen du Ermuko Saihesbidea eta erradioko beste bi proiektu berandutzearen arrazoitzat.

Ez gaude batere ados Diputatu Nagusiak Bizkaian aurrekontuaren murrizketarik ez dagoela esan duen horrekin. Guretzat onartezina da Ermuko Saihesbidearen proiektua, noiz arte zehaztu gabe, geroratu izana, eta kalte ikaragarria gainera.

Gure saihesbidearen kasuan, horrenbeste berandutze, aldez aurretiko proiektu, orotariko azterketa tekniko, trazadura aldaketa, iragan behar duen lurren desjabetze (egin behar izan denean) egin ondoren, eginak daude jada trazadura guztiaren proiektu osoa eta lizitazioa, eta Diputazioak aukeratutako proiektuak, berriz, edo ez daukate horiek egiteko beharrezkoa den Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen azteketarik, edo baldintzak bete dituzten bide-guneak bakarrik atera dira lehiaketara.

Horregatik guztiagatik Ermuko Udala eratzen duten alderdi politikoek ondorengoa erabaki dute:

1. Ermuko Saihesbidea egiten ez hasteko Diputazioak hartu duen erabakia hobeto pentsa dezala exijitzea, eta gure herriarekin hartu dituen konpromisoak betetzeko eskatzea.
2. Saihesbidea ahal bezain laster egiten has daitezen egin beharreko guzti guztia egingo dugula herritarrei jakitera ematea.
3. Behar bezalako erantzunik jaso ezean, behar diren ekintza guztiak ipiniko ditugula martxan iragartzea (manifestazioak eta behar den guztia).

Ermuan, 2012ko urtarrilaren 25ean

ALDEKOAK: PSE-EE PSOE PP BILDU IU-EB

ABSTENZIOAK: EAJ-PNV